


## OIARSO HARANA ETA LEZOREN SORRERA

**A**intzinatean, euskal lurraldeak ongi mugaturik ez zeuden garaietan, Hondarribia, Hendaia, Irun, Erreterria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia hartuz, eta Donostiako ateetaraino iritsiz, «Oiarso» edo Oiartzun izeneko eskualdea ezagutzen zen. Lezo sortu gaberik zegoen oraindik, eta gaur bereak diren lurraldeetan arrantzale eta artzain txabola batzuk, besterik ez zeuden.

XII. mendean, 1150 eta 1154 urteen artean, gure lurralde hau Nafarroako Erresuman sarturik, Antso Jakitun erregeak, Donostiako foruak onartzerakoan, Oiarso Haranari lur eremu haundi kendu zion donostiarrei emateko.

1203 urtean, eta Gaztelako Alfonso VIII.ak emandako ageri berezi baten bidez, Hondarribiak, gaurko Irun, Lezo eta Pasai Donibane barruan zituelarik, bere bereiztea lortu zuen bere udal propioa antolatuz. Ageri berezi bera hortan



«Andreone Zaharra»

esaten denez, erregeak Pasaiako badian dagoen itsasadar batetan, eta beti Hondarribiako barrutiaren barruan, unibertsitate izeneko herrixka bat egiteko baimena eman zion Gillermo Lazoni hitz hauek erabiliz:

«ITEM DONO VOBIS  
GUILLELMUN DE LAZON  
ET SOCIOS SUOS, UT SINT  
VESTRI VICINI».

«GAINERA, GILLERMO LAZON  
ETA BERE LAGUNAK EMATEN  
DIZKIZUET, ZUEN AUZOKIDE  
IZAN DAITEZEN

Honela, eta nahiz eta Hondarribiaren barruan jarraitu, Lezok bere eremu propio eta bereiztua izatea lortu zuen, eta honekin batera errejidore bat eta bi koperoz (tenedore ekonomiko) osatutako administralgo ekonomiko berezia.

Gillermo Lazon izan zen seguraski Lezo herriaren fundatzailea, edo horrela behintzat har dezakegu, zeren eta herriaren izena berea eta beste biztanle baten izenarekin batera azaltzen bait da lehenengo aldiz idazketa batetan. Sinisten denez, Lazon Lezo Haundia etxeke nahusia zen.

Lehen esan dugunez, Hondarribiak 1203an lortu zuen bere udala, baina hala ere muga asko oraindik ondo finkatu gabe zituenez gero, Oiartzun (Oiarso) eta Hondarribiaren arteko istilu eta eztabaidak oso ugariak izaten ziren.


Azkenean, mugak ongi fijatu nahian, 1470ko abenduaren 21an, bildu egin ziren Andrearriaga deitutako lekuan bi herrietako ordezkari eta epai-arbitroak.



Eta, Lezo Hondarribiako udalaren barruan zegoelarik, hara joan ziren ere ordezkari lezoarrak. Dirudienez, 1556ko otsailaren 27an beste bigarren bilera bat antolatu zen gauza bera konpondu nahian. Baina hala ere, nahiz eta muga ezberdintasunak konpontzeko bi bilera ospatu, istiluek gero eta indar gehiagoarekin jarraitzen zuten. Eta honela, 1562an Hondarribiako udalak mugarri berriak jarri behar izan zituen.

Bestaldez, Lezok Pasai Donibanerekin zituena harremanak oso hestuak ziren.

Diru berdina zerabilkiten, bi herriak Eliz Barruti eta Kabildo berdinetan sarturik zeuden, ospitale bera zeukaten, eta biak txandatzen ziren Jaizkibeleko eremuak aprobetxatzeko orduan. Bainan hasiera batean, loturezko arrazoinak ziren hauek, denborarekin eztabaida eta haserraldien motibo bihurtu ziren. Ondorioz, uda eta erlijioso bereiztea egin behar izan zen bi herrixken artean. Honela Lezoko San Joan Bataiatzailearen Eliza lezoarrentzat bakarrik gelditu zen (lehen lezoar eta sanjuandarrentzat bait zen), eta sanjuandarrek berea eraki zuten. Hala ere, haserraldiak luzatzen zirenez gero, 1557an, bi herrietako ordezkariak, konponketa garbia bilatu nahirik, adiskidetasun eta adostasunaren agiri bat zinatu behar izan zuten.



Bainan gauza ez zen hor geratu, Pasaia bereiztasun osoaren atzetik bait zebilen. 1614an Pasaia bere asmoak argi eta garbi azaldu zituen eta 1756an bere udal propioa lortu egin zuen.

Bestaldetik Irunek 1776an gauza bera lortu zuen.

Pasaia, lortutako bereiztea eta gero, ondo zehaztu zituen bere muga guztiak, eta batez ere Lezorekin zituenak.

1805ko irailaren 26an atera zen errege agiri batek zioenez, bai Nafarroa eta bai Hondarribiak ekonomi aurrerapen bat eduki zezaten, Hondarribia, Pasai Donibane, Lezo eta Irun Gipuzkoako probintziatik kanpo eta Nafarroako Erresumaren barne gelditzen ziren. Eta honela izan zen 1814 arte. Lezo ez zegoen oso ados neurri honekin prioritate ekonomiko guztia Hondarribiari ematen bait zitzaion, eta makina aldiz eskatu zuen bere desanexioa bai Nafarroatik eta baita Hondarribiatik ere.

Azkenez, 1818an Lezok udalerrria bihurtzea lortu zuen. Udala lortu zuen une zehatzean, Lezok nekazaritzan edo portugintzan aritzen ziren 120 sendi zituen gutxi gora behera. Gillermo Lazonen denboretatik udala bezala eratu arte, seirehun urte igaro izan ziren.

**KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA «Gaintza»**  
**«Lezo herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa» (1983)**